

ZERUAN BEZALA LURREAN ERE

*Fritz HOCHWALDER Autrichianoaren lan bat
Julien POCHELU-k eskuaraz itzulia
R. Thieberger eta Jean Mercure-k frantseseza ezarririk,
Athénée-ko teatrian eman izan da lehen aldikotz
1952-ko urthean Parisen*

Aintzin- Solas

Ixtorio hau Buenos-Aires-eko Jesuisten Ikastetxeko barne batean pasatzen da, 1767-ko urthean urtarilaren 17-an. Barne hori, lekuko Aita Nagusiaren bulegoa da. Murruren gainean mapa biribil bat. Haren ondoan Paraguay-ko mapa eder bat. Hunen eskuinean eta gainean Frantses Xavierekoaren potreta.

Eskualdean eskaler junta bat doi doia ageri. Bi kadera eta bulego bat, hunen gainean kurutze bat zurezkoa.

Agertzen dira:

Fernandez: Aita Nagusia
Liebermann: Ikastetxeko Jesuiten burua
Naguaku
Kandia: Bi lekuko gizon
Oros: Erresumaren zaintzailea
Miura: Erregearen enbaxadorea
Bustillos: Buenos-Aires-eko espagnol bat
Cornelis: Europako tratulant bat
Clarke: Jesuiten moltseroa
Arago: Miuraren laguntzaile bat
Villano: Aintzindari espagnol bat
Querini: Aita Sainduaren mezularia
Gervazoni: Buenos-Aires-eko Apezpikua
Catalde: Buenos-Aires-eko espagnol bat
Akatu: lekuko gizon
Barrigua: lekuko gizon
Beste Jesuitak dira: Escadon, Clausner, Jacquier, Briguel,
Bertzalde lekuko gizon zombait eta soldadu batzu

LEHEN ZATIA

LIBERMANN: Aita Nagusia, huna Candia eta Naguacu hemengo bi eskualdetako buruzagiak. Galdegiten dauzute bataioa eta zure gomenduko eskualde batean sartzea.

(Agur bat egiten diote Aita nagusiari)

AITA NAGUSIA: Bataioa galdegiten duzu?

NAGUACU: Bai Aita Nagusia bataioa galdegiten dugu.

AITA NAGUSIA: Ez duzue gehiago bazterretan furu ibili nahi?

NAGUACU: Ez ber lekian egon nahi dugu.

AITA NAGUSIA: Libroki heldu zirezte gure ganat?

NAGUACU: Ba libroki heldu glra zure ganat.

AITA NAGUSIA: Zer jende da zuen eskualdetan?

NAGUACU: Zazpi mila? Aita nagusia, eta zazpi mila libroki heldu girenak. Othoi har gaitzatzu Jainko onaren erresuman.

AITA NAGUSIA: Krlsto zuen indar guzietz nahi duzue zerbitzatu?

NAGUACU: Ba Kristo dugu nahi gure indar guzietz zerbitzatu....

AITA NAGUSIA: Umiltasunean?...

NAGUACU: Ba umiltasunean...

AITA NAGUSIA: Obedituz?.....

NAGUACU: Obedituz...

AITA NAGUSIA: Kristoren amodioaren gatik behar duzue gauza guzietan gure Jesuisteri obeditu.

NAGUACU: Jesuisteri obedituko dugu....

AITA NAGUSIA: Jainko faltsuak bazterrerat utziko dituzue.

NAGUACU: Ba Kristo dugu bakarrik adoratu.

AITA NAGUSIA: Emazte bat baino gehiagorekin bizitzeari uko egingen duzue?

NAGUACU: Ba Jainko onaren amodioaren gatik

AITA NAGUSIA: Denak batean landetan lanean ariko zirezte. Lanaren fruitua denena izanen da. Nork berak bere irabazia behar du utzi. Ez duzue gehiago zuenik deus izanen.

NAGUACU: Zu aintzindari, Aita Nagusia, gure jende ukanen dute ogia eta haragla, Jainko onaren atarramenduak emazkigutzu. Nahi dugu obeditu.

CANDIA: Nahi dugu obeditu.

AITA NAGUSIA (*mapa erakutsiz*): Hemen Parana eta Uruguay ibaien bazterretan Jainkoaren erresuma hedatua dugu. Hogoi eta hamar eskualde, ehun eta berrogoi eta hamar mila gizon girixtino bilhakatuak Zuen eakualdetako zazpi mila glzonak nahi dituzue giristinotu. Jainkoa handizkiago ohoratua izan dadin?

CANDIA: Ba, gogotik heltzen gira zazpi mila gizon eta Amerika huntako odola duten guziak dira jiten Jesus Jainko onaren ganat.

(Agur egiten diote bi gizonek eta joaiten)

AITA NAGUSIA: Jainkoaren erresuma hedatuz doa. uZta ederra da bainan zonbat langile.... Aitik ez dugu... .Nun hatzemanen dugu erretor bat arthalde horrentzat.....

LIBERMANN: Eskualde hori emazu Reinegg Aitari.

AITA NAGUSIA: Sobera ezta eta minbera da fededun berri horrentzat... Gizon aditua behar dute.....

LIBERMANN: Beraz Ortega San Miguel-ekoa.

AITA NAGUSIA: Ez española da...

LIBERMANN: Edo Escadon San Xaverekoa...

AITA NAGUSIA: Gaztegi da eskualde pagano batentzat. Behar dugu gure arteko aitarik adituena eta hura da Brieguel Candelaria hirian dena

LIBERMANN: Balnan Brieguel atxilkia da Candelariako jendearl. Hgoi urthe hotan han da.

AITA NAGUSIA: Badltake; Bainan hura dugu behar. Libermann, igor berehala norbeit Candelaria hirira.

Orai jar gaiten. Españako Erregearen gizonak helduak direa Ikasetxe huntarat?

LIBERMANN: Oral elizan othoitzean dira eta ethorlko dira memento batetarik besterat. Anartean soldado beltzek behar dltuzte musikarekin errezebitu.

AITA NAGUSIA: Ekarri dia Aita Jesuistarik Españolen untziak?

LIBERMANN (*ethortzen den Oros Aitari*): Jesuistarik untzitik jeutsl dea?

OROS: Ez

AITA NAGUSIA: Alta. Erromatik Aita Generalak hitz emana zaukun laguntza... Eta bestela kurriltu dituzun herrietan noia doa gure kontra egiten duten inkesta?

LIBERMANN: Agerl da heien jokoa. Diote baginduzkeela zilhar eta urhe miak lekuko jendea petzero atxikitzen dugla, f eta oraino ez dakit zer eta zer. Bainan Españolak atxemanak dira; Jesuisten lurretan ez dute deusik harrapatzen. Galda hori Villano ainizindariari.

AITA NAGUSIA: Villano delakoa... Oros elhaka zatzu eta ikhus zer dion. Soldado izan zira eta harekin gudukatu, hare dako lagun bat zira. Eta bestalde ez othe da giristinoa?...

LIBERMANN: Ba bere eginbideak bethetzen ditu, aide hortarik ez da deus erraitekorik

AITA NAGUSIA: Haren erranen gainean dugu ari behar. Harek ditu konduak emanen Miura Enbaxadoreari. Harekilakoa egizu, hura segi, harekin edan, ere, behar bada arno ona maite duzu.

LIBERMANN: Ikusiko duzu Aita Nagusia, inkestak erakutsiko duela zertaz gaituzten akusatsen; eta gero Erregearen Enbaxadoreak berriz xurituko gaitu eta jujamendua izanen da zuzena lehengo deaboran bezala.

AITA NAGUSIA: Ba Jainkoaren grazak gure lana laguntzen du. Hura gabe deus ez gintazke. Bainan gauza horiek lur huntakoak izanikan ere ez ditugu debalde utzi behar. Gure dretxoak behar ditugu zaindu.

LIBERMANN (*xutizean*); Oraino zoabait oren eta xurituak izanen glra. Orois Aita zerbeitetaz jelostua da bainan egon dadiela guztian (*badoa*)

OROS: Español horiek sei hilabete hotan hor daude, inkesta behar dutela bururatu, hori ez zaut batere laket. Behar dituga faltsu horiek aintzindu

AITA NAGUSIA: Ez dute españolek auzia eremanen. Enbaxadorea ezagutzen dut, glzon zuzena da. Eta Mihurak gure aphezen medioz du kargu hori bildu.

OROS: Bueos-Aires-eko, Tucuman eta Azuncion-eko aphezpikuak gure kontra ditugu.

AITA NAGUSIA: Aphezpikuek bere jenden interesak defendiatzan dituzte; defendia ditzagun gure jendenak.

OROS: Hemengo espāñolak herran daude gure kontra.

AITA NAGUSIA: Berdin balio du. Erosiko dituzte giza txar zonbeit, bainan Enbaxadorea gizona da.

OROS: Beste erresuma batean ere gizon bat, Carvalho deitua ohoratua da gain gaintetik gu beltztu gaituelakotz.

AITA NAGUSIA: España besterik da.

OROS: Frantzian berean gure lagunek kanpo dute eta hori delako gizon. haren izkribuen gatik

AITA NAGUSIA: Khasatze horrek erroak bamago ditu; Oraiko filosofoak dira guri aiher.

OROS: Aphezpikuel berek kanpo ezarri nahi gaituzte eskualde huntarik .

AITA NAGUSIA: Aita Sainduak maite gaitu eta laguntzen. Nehork ez du Aita Saindua laidostatuko.

BUSTILLOS: Bortha hori zertako gakhotzen duzue? Ala beldur zirezte?

AITA NAGUSIA: Agur Jauna Zertaz dugu zure errezibitzeko ohorea?

BUSTILLOS: Ez da ohorerik aipu; heldu niz tratulari eta laborari giristinoe guzen izenian

AITA NAGUSIA: Tenore onean heldu zira. Oren baten buruan Enbaxadoreari erraiten ahalko duzu zer den zure arrangura.

BUSTILLOS (*gora*): Oraine delako enbaxadore hetarik... Ezagutzen zuztegu. Usaian zuen jujeak zihauriek hautatzen dituzue. Bainan leporadino badugula jakin ezazu. Lehenik lekuak huts dezaztela zuen meneko diren indioek eta ez dltezela gure menekoekin ibil.

AITA NAGUSIA (*eztiki*): Bainan behar ditugu Buenos-Aires-eko hirian berean atxiki inkesta egiteko behar direnak. Guk nahiago gintustuke etxerat igorri etsenplu tzarraren gatik.

BUSTILLOS (*Gaitziturik*): Nundik etxenplu tzarra? Zuenek dute emaiten exenplu tzarra Lana ber heinian da bethi. Gauzak hola joanez jendea jazartuko da arte laburrik barne.

AITA NAGUSIA: Bainan zer egiten ahal dugu guk?

BUSTILLOS: Ixilaraz zuen gizonak... Zuen erresuma nehun ez bezalakoa dela, eta gauza ederra dela giristino herria esklaborik gabe, eta ez dakit zer eta zer.

AITA NAGUSIA:Gauza horiek poxelu badituztu, errazu...

BUSTILLOS: Badakigu jende horiek ez direla inkesta egilek hautatuak bainan zuek. Ezagutzen zuztegu aski, bainan ez ditugu zuen manerak onharzen ez eta ere gure langileri

opor eginaraziea, Zuen lana segi zazue nahi duzuen lekuan, Erregearen baimena maluruski duzuenaz galnean. Bainan zuen jendeak lekuak huts dezaztela Buenos Aires hiritik.

AITA NAGUSIA: Beraz manatuko dut gure jendeak ez ditezen Ikasetxe huntarik jelgi. Aski zauzu.

BUSTILLOS: Hori lehen gauza da.

AITA NAGUSIA: Ez adiorik, Jauna. Oros Aita segi zazu gizon hori (Bustillos ez da mugitzen) Baduzu oraino zerbait erraiteko.

BUSTILLOS (Motz): Ba, gure begien bixtatik Paraguai-ko eskualdetik zoazte hori nahiago ginduke.

AITA NAGUSIA: Es adlorik...

BUSTILLOS: ez zuztegu gehiago ikusi ere nahi hemen. Konprenitu duzu hori.

AITA NAGUSIA: Ez zaitut nik hemen atxikltzen.

BUSTILLOS (joaitean): Lekuak huts Paraguay huntarik... (*OROS le suit*)

(*CORNELIS arrive précipitamment suivi peu apres de CLARKE*)

CORNELIS (sartzean): Bego hortan ... Asea niz... Fini... Banoa...

AITA NAGUSIA: Bainan Jauna...

CORNELIS: Ez dut zuen dute behar beharik.

CLARKE: Cornelius jaunak aldi huntako bere dute beharra bertze nunbeit erosiko du... Sacramento hirian menturaz...

CORNELIS: Segurki eta hori eginen dut... Sacramento hirian... Ni mila hirriskuren erdian pasatzen niz zuen dutea lekurat heldu gabe eta oraino prezio alimaleak galdatzen dauzatzue. Azken aldikotz erraiten dautzut Alta Nagusia lekuko, nahi duzia tratia egin 1;200 etan.

CLARKE: Ez dezaket. Falta dugu burdina eta gisia eskualde berrientzat. Gure dutearen balioarekin dugu erosten European doi-doa behar den hura.... Bainan zoazi Sacramentorat; eta entsea berzan dutea...

CORNELIS: Badakit zuen dutea hoberena dela, garbiena, mundu guzian jendeak galdatzen dutela Jesuisten mate famatu hura... Bego...

CLARKE: Ez dautzuegu aldi huntan saltzen ahal. Alta dolu dugu...

CORNELIS: Txapela eta makila... Ah ...ez behereasn utziak ditut. (*il fait de sortir puis s'arrête*) Alta Nagusia ezagatzen nuzu: Protestanta niz bainan ezagutzen dituzu ene sendimenduak zuen aiderat. Denetan sustengatzen zituztet zuen pharteko etsai batezuen kontra. Baina hola ez dezaket... nahl nuzue peko errekarat igorri (*badoa*)

AITA NAGUSIA: Tratua egizue... (*à Clarke*) Errazu Cornelis gure adixkidea da.

CORNELIS: Errazu motzeroa, ez duzu sos bat ateratzen ahal... Bainan Aita ontsa mintzo baita 1.300 etan... Kargaturik prest...

CLARKE: Mila borz ehun-en petik ez

CORNELIS: Mila borz ehun? Ez adiorik (*Badoa*) Alta...

AITA NAGUSIA: Adixkide bat galtzen dugu. Ez zena halarik ere egiten ahal?...

CLARKE: Guk españoleri pagatzen dugu xuxen galdatzen dutena. Beraz zorrik ez egiteko, behar ditugu kondiak xeheki egin. Eta berzalde zaude gustian berriz jinen da.

AITA NAGUSIA: Eroslea?...

CLARKE: Ba

AITA NAGUSIA: Iduri zuen gaitzituia.

CLARKE: Iduri; Jende horiek erakatsl dautate ofizioa.

CORNELIS (entrant à nouveau): Txapela eta makila nun ezarri ditut... Hemen... ez... Moltseroaren bulegoan naskl... Barkatu. (*il sort par la porte de gauche*)

CLARKE: Arras ontsa badaki nun utziak dituen txapel eta makilak... Duteaz du axola.

CORNELIS (revient avec chapeau et canne): Beraz, Aita Nagusia, azken aldikotz elgar ikusten dugu.

AITA NAGUSIA: Dolu nuke.... Elgar adi zazue moltseroarekin.

CORNELIS: Gizon horrekin. (*à Clarke*) Ez dut baitezpada zure dutea nahi bainan Aita Nagusia da hanbat goxoa eta... eta... mila eta lau ehun etan zu zirelakotz....

CLARKE: Zurea da mila eta lau ehun etan zu zirelakotz.

CORNELIS: Biba zu... Aferetan gizon aditua zira zu.. (*espalda hunkitzen dio*)

CLARKE: Berehala kargatzea dut eta zato enekin ikusterat;

CORNELIS: Ez du bailo zutan fida ni.» (*Clarke sort*) Horra dirua... 200.... 300....400...

AITA NAGUSIA: Jainko maitea zurekin izan dadila bidaia guzian.

CORNELIS: 600... 700... 800... Milesker

AITA NAGUSIA: Zuzentasunean jukatzen gaituzu. Katoliko zonbaitek ere behar lukete zu bezala pentsatu.

CORNELIS: Ba hainitz etsai badituzue 900... 1.000... eta horra denak so egizu.

AITA NAGUSIA: Arras ontsa da...

CORNELIS: Zerbeit egin ahal badautzuet egun batez? Nork daki?... Ihes lekku bat eskaini... Gu Jesuistak ere onhartzen ditugu...

AITA NAGUSIA: Arraileriaz ari zira...

CORNELIUS: Oh, ez. Pena handi dut behar bezalako gizonak baitzizte... Gaitzak gizonak eta zuen obra mementorik hoberenean utzi behar...

AITA NAGUSIA: Ah... Zu ere...

CORNELIUS: Ba galdua zirezte...

AITA NAGUSIA: Zuk ere uste duzu ez dela deus egitekorik. Sinets nezazu, traba hainitz gure bidean bada, aintzina joaiten girelakotz. Bainan ez gira geldituko. Ehun eta berrogoi eta hamar urtez aphailatzen ari ondoan Jesuistak lotzerat daz Paraguai-ri. (*Il montre la carte*) Gudu bat izigarria, urak iraganez, badoatzi leku salbaitarat heietan azken giristino bilhakatu arte. Egia da, gure erresuma ez da bethierekoa, egun batez eroriko da. Bainan erreusitu dugu mendez mendez, beste batzuk saila segituko dute, eta azkenean mundu guziak gozatuko du hainbeste berantetsi duen bakea.

CORNELIUS: Aita Nagusia, Jainkoak begira zaitzatela zu eta zure erresuma...

AITA NAGUSIA: Egizu Hollandaraino bidaia on

(*CORNELIS sort. Le Père Provincial range l'argent, le porte vers la chambre gauche. Musique de marche puis silence entre MIURA*)

MIURA: Alfonso Fernandez...

AITA NAGUSIA: Miura aspaldikoa... (*Accolade*)

MIURA: (*ton officiel*) Aita Nagusia...

AITA NAGUSIA (*De même*): Jaun Enbaxadorea.

MIURA: Goraintzi ekarzen dautzut Toledatik zure aitaren partez.

AITA NAGUSIA: Milkesker..

MIURA: Zure bi anaiak aintzindari dira español armadan.

AITA NAGUSIA: Nitarik urrun dira. Ongi ethorri, Jaun enbaxadorea.

MIURA (*jarririk*): Orhoit niz nola zinen gazte eta suhar. Eta orai elgarrekin gira zu fraile eta ni enbaxadore.

AITA NAGUSIA: Zure amodioa beti bizi dea?...

MIURA: Ba beti Españako eta Erregearen alderat.

AITA NAGUSIA: Nerea ere. Kristoren alderat eta haren zerbitzuko hemen Paraguay huntan.

MIURA: Dakizun lanaz kargatua niz...

AITA NAGUSIA: Ba eta erremestiatzen zaitut.

MIURA: Hartu behar ditut gustatzen ez zauzkitan xede batzu.

AITA NAGUSIA: Sinesten zitut.

MIURA: Zuzenbidea segitzen dut eta zuzen kontrako gauzak hemendik kanpo ezargo. Behar diren bideak hartuko ditut.

AITA NAGUSIA: Zure eginbidea da.

MIURA: Lehen gauza: inkesta denbora guzian Ikasetxe huntako bortak hetsiak izanen dira.

AITA NAGUSIA: Segurki.

MIURA: Nehor ez du hemendik atheratu behar.

AITA NAGUSIA: Zure manuak segituko ditugu lanoki.

MIURA: Milesker... Gero

(*CORNELIS entre rapidement*)

CORNELIS: Zer da manera hau. Zure etxean beharko dut gelditu Aita Nagusia. Gizon hunen soldadoak Ikasetxean dira eta ez dute uzten nehor pasatzerat.

AITA NAGUSIA: Badakit Cornelis. (*à MIURA*) Jaun hau Hollandesa da. Utzarazu pasatzerat, ene adixkidea da.

MIURA: Ez dezaket, ditudan manuen kontra da.

CORNELIS: Arrazoinik gabe preso atxikitzen duzu arrotz bat. Zendako hori?...

AITA NAGUSIA: Ez zira preso...

CORNELIS: Ba eta zu ere...

AITA NAGUSIA: Ni ere...

CORNELIS: Ba eta zu ere eta zer diozu preso izaitiaz...?

AITA NAGUSIA: (souriant toujours) Ni... preso...

CORNELIS: Ez duzia ikusten Jesuista guziak presoner direla?

AITA NAGUSIA (à MIURA): Ikasetxe hunen hestek erran nahi othe du preso girela?

MIURA: ... (*il ne répond pas*)

AITA NAGUSIA: Ez gituzu preso ezarriko arrazoinik gabe...?

MIURA: (*il se lève*)

AITA NAGUSIA: Egiazki preso eginak girea...?

MIURA (*eztiki*): Nik dutan bigarren manua hau da: Inkesta denboran, auzi aintzinean, Jesuistak preso atxiki behar ditut. (*Le Père Provincial recule, épouvanté se retourne vers la carte, puis ouvre lentement les bras comme s'il voulait protéger l'Etat*)

RIDEAU

BIGARREN ZATIA

ARAGO: Makilekin marexak ninduke. Zer ari izanz zira hoinberze denbora huntan... Frogak behar zintuen... Nun dira lekukotasunak?;;... Minen gainean...diru gordeen gainean. Badea dirurik Paraguay-ko Erregearen potretarekin?;;; Nola frogatuko duzu Jesuistek jendea zangopetan daukatela?... Ez dutela Españako Erregeari obeditzen?... Behar ditugu paper andana bat lekuko. Nun dituzue?...

VILLANO: Horra, horra... Ilhaebethe osoak eman ditut hoin biltzen. Hiri batean bazen asto karga bat, berze batean bi asto karga, eta hirugarrenean...

ARAGO: Laugarren astoa zu. Asto bat gaitza, asto bat animalia...

VILLANO: Ah... Jakinzazu laidotzen nuzula.

ARAGO: Biltzen dautazu hinat bi mila gizonen sinadura, paper, pleinu, zinkurina...

VILLANO: Ene eginbidea zen biltzea. Ene eginbidea bethe dut. Soldado niz eta aintzindari. Badakit, nahi duzue, Jesuistak Jesuistak kanpo biltzea eta bildu ditut. Zuei orai hautatzea heietan nahi dituzuenak.

ARAGO: Arralleriaz ari zira naski...?

VILLANO: Zu zira arrallerian ari. Zer bada? Mapa hortan behar ez bezalako itzal bat badela?... Artzazu hakilaik jujamendu hori eta ez duzu onhartuko. Denak aberastuko gira, bada errekolta, kotoin eta berzalde ehun eta berrotgoi eta hamar mila gizon esklabo izaiteko Jainkoak kreatuak. Beraz zerendako inkesta, auzi eta buru hauste? Gerla ttipi bat eta denak fini dira...

ARAGO: Justu justua gerlarik dugu ez behar. Ez duzu hori aditzen? Dretxoa gure alde behar dugu. Horela Jesuistek ez daukute gerlarik egiten ahalko. Auzian behar dugu lehenik frogatu: Erresuma hunek ez duela Erregeari obeditzen. Bigarrenekorik: Jesuisten esklabo dela hemengo jendea. Hirugarrenekorik: behar ditugula beraz libratu. Eta laugarrenekorik: Jesuistek badituztela gorderekin dauzkaten zilhar miak.

VILLANO: Bainan ez duzu deus frogatzen ahal, ez baita egia.

ARAGO: Nik diot frogatu behar dela.

VILLANO: Zertako behar dugu lan hori egin?... Zertako bada...?

ARAGO (*geste vers le couloir*): Ixil zaite.

(MIURA, QUERINI et le Père Provincial arrivent suivis de quelques soldats qui restent dans le couloir)

MIURA: Aita Nagusia, jar zaite othoi. Eta zu Querini Jauna, barka zadazu bainan zure lekua hemen da zonbeit denboraz.

QUERINI: Obeditzen dut bainan bitxi zaut nola bidaiant arrotzak hemen atxikitzen dituzun?...

MIURA: Bitxi zaut ere zu ethortzea hunarat memento huntan. Ni, manuairen peko niz...

QUERINI: Ni ere alta...

MIURA: Ez zira bortxatua gure bilkuran egoitea, baina Ikasetxe huntan behar duzu egon...

QUERINI: Milesker. (*badoa*)

AITA NAGUSIA: Nik galdatzen dautzut egoitea eta behatzea.

QUERINI: Erranen duzu berdin zerbeit arrotz batek entzun behar ez ditien solas zonbait.

AITA NAGUSIA: Ez. Ez dugu deus gordatzeko.

QUERINI: Beraz zuer nago (*il sort*)

MIURA (*à ARAGO*): Inkesta egileak erran dezagula zertaz Jesuistak akusatuak diren. Jar zaizte Jaunak (*Tous s'assoient*)

ARAGO: Villano Jauna mintza zaite.

VILLANO: Zertaz akusatuak diren...? Jesuistak akusatzen dituzte... Horiek guziak paperetan izkribatuak dire miletan. Nik ez ditut klarzen ahal hola bi hitzez. Beraz Jaun Enbaxadorea ikus paper horiek.

MIURA: Aita Nagusia, badakiziu zertaz zirezten akusatuak...?

AITA NAGUSIA: Errana izan da erresuma berezi bat antolatu dugula eta Erregeari desobeditu. Gure sal erospenetarik interes handiegiak atheratu eta hori España gure Erresumaren kaltetan, lehertu dugula eta petzero atxiki hemengo jendea gure gomenduko dena.

MIURA: Ikusiko ditugu gauza horiek bat berzearen ondotik. Villano Jauna egia dea Jesuistek erresuma berezi moldatu dutela Paraguay huntan...?

VILLANO: Hala da...

MIURA: Zuk zer diozu... (*au Père Provincial*)

AITA NAGUSIA: Ez dugu erresuma berezirik

VILLANO: Hemen nahi dutena egiten dute, beraz nagusi dira.

MIURA: Alta Españari ez diote ukho egin.

VILLANO: Egia da hori

MIURA: Beraz ez dira hemen nagusi

VILLANO: Hori ere hala da.

MIURA: Arago izkiria ezazu: ez da frogatua izan Jesuistek erresuma berezi bat moldatu dutela.

Bigarren gauza: Villano Jauna, Jesuistek Erregeari desobeditu dutea?...

VILLANO (*s'essuye la sueur*): Desobeditu... desobeditu... Nihaurek ikusi dut ez dutela err beti obeditu.

MIURA: Desobeditzen dutea Erregeari?

VILLANO: Zertako egin lezakete. Orai arte ez diote deus galdatu. Bainan zerbait galdetzen balinbazei, ez lezakete menturaz obedi.

MIURA (*au Père Provincial*): Eta zuk zer diozu?...

AITA NAGUSIA: Erregearen meneko gira eta orai arte zaindu gaitu.

MIURA: Eta ez balinbaziuzte gehiago begiratzen?

AITA NAGUSIA: Lur huntako gauzetan beti gure nagusi dago.

MIURA: Zer nahi galdaturikan ere obedituko duzue?

AITA NAGUSIA: Bekaturat artinoko guziak eginen ditugu.

MIURA: Arago izkiera ezazu: Ez da frogatua izan desobeditu dutela. Villano Jaua egia dea eskualde hotan badirela zilhar-miak?...

VILLANO: Inkestak ez du erran ez ba ez ezetz. Ez ditut oraino paper guziak irakurri. Menturaz zerbeit ageri izan ditake, edo inkestari batek guri erran gabe, kausitu duke, goiz huntan berian berdin. Beraz baditake Paraguay-ko erresuman zilhar-miak badituzketela.

MIURA (*au Père Provincial*): Eta zuk zer diozu?...

AITA NAGUSIA: Zin egiten dut erresuma huntan ez dugula ez harrapatu ez baliarazi zilhar edo urhe-miarik.

MIURA: Baditutzia frogak holako miak badirela hemen?...

VILLANO: Ez...

MIURA: Beraz Arago izkiria zazu: Orai arte ez dela frogarik izan Jesuistek badituztela zilhar-miak. (*il répète*) zilhar-miak... Berze gauza bat: egia dea irabazi soberakinak egiten dituztela Españaren kaltetan?...

VILLANO: Jesuistek saltzen eta erosten dute. Eta tratu egiten ohointza bezala da. Etxeak harrizkoak dituzte, elizak urhez betheak. Nundik dira hola aberastuak?... Beren sal erospentarik. Beren salgeietarik beraz irabazi sobera egiten dute eta irabazia Españarena da.

MIURA (*au Père Provincial*): Zuk aldiz zer diozu?

AITA NAGUSIA: Ez dugu deus irabazten gure salgeietarik?... Horra etxenplu bat: Orai berean Cornelis delakoak erosi dauku dute belherra mila eta lau ehu liberetan. Duri horrekin moltzeroak erosiko ditu laborantzako zonbeit tresna guhaurek egiten ahal ez ditugunak. Tresna hek igoriko ditugu beharra den leku guzietarat, leku hetarik dutea jinik ala ez. Eta aldi oroz hola egiten dugu.

MIURA: Beraz irabazirik gabe saltzen duzue?...

AITA NAGUSIA: Ba irabazirik gabe.

MIURA: Eta ordian nundik jelgitzen duzue Erregeari pagatzen dituzen zergen dirua?...

AITA NAGUSIA: Hura ere salgei soberakinetarik. Bainan laguntzale batzu berma, gure zergak ez dira handiak.

MIURA: Gauza hori ez da arras garbi (*argitua*) bainan bego geroko. Ikus dezagun azken pondua: Indiano jendeak esklabo direa? Zer diozu?

VILLANO: Jesuistek gobernatzen dute erresuma hgau. Ehun Jesuista ehun eta berrogoi eta hamar mila gizonentzat. Eskualde batean zazpi mila gizonentzat bi Jesuista, bi biak dira xuriak. Bertze batean sei mila gizon eta bi Jesuista eta hola hola ogoi eta hama eskualde, bakotxean bi Jesuista. Berze berrogoiak ikasetxetan barreaturik. Jesuistek denak egiten dituzte: juje, errient, jendarma, aintzindari, moltsero?... Denak. Hemengo jendea deus ez da. Haur ttipi andana bat ez du libertate izpirik esklabo da... (*il s'essuye la sueur et s'assoit*)

MIURA: Zuri da mintzatzea (*au Père*)

AITA NAGUSIA: Egia da baditugula bi Jesuista zonbeit mila jende diren lekuan. Eta egia da lan horietaz ere artha hartu behar dugula. Hemengo jendea maleziarik gabe da bainan haurra da. Guhaurrek ez bagineze haziak phartitzen, laster gabe geldi laizke. Duela ehun urthe jende mota hori kurri zabila herriz-herri, eta egia da: denak egin behar ditugu. Bilhakatu gira ofiziale, laborari, kargudun,... Behar dituzten guziak badituzte gu ganik bai arimarentzat bai gophutzarentzat. Hortan da gure erresuma berzeak ez bezalako.

MIURA: Erran nahi duzu naski ez duzuela esklaborik, bainan zuen akusatzaileak dituztela.

AITA NAGUSIA: Ez dut hori erran

MIURA: Pentsa dukezu. Arago Jauna izkiria: Aita Nagusiaren arabera, ez da egia hemengo jendea esklabo dela.

ARAGO: ... esklabo dela.

MIURA: Orai arte ez dut deus erratekorik zuen bizi moldeaz. Eta ez nuke zuen kontra ari nahi. Erraiten ahal dut ene inkesta egiten dutala alderdikierarik gabe.

AITA NAGUSIA: Arras ontsa egiten duzu Pedro Jauna.

MIURA: Halere nahi nuzke aditu zuen akusatzaileak. Villano (*il approche*) norbait igor berehala Apezpikuaren eta españolen bilha. Funtsean zer nahi duzue egin erresuma huntan?...

AITA NAGUSIA: Jainkoa handizkiago ohoratu

MIURA: Eta nola uste duzue hortarat heltzea

AITA NAGUSIA: Pagano guztiak konbertituz.

MIURA: Erran nahi duzu Paraguay huntako pagano guziak.

AITA NAGUSIA: Hori bera.

MIURA: Eta beti giristinotu nahi dituzu gehiago eta gehiago pagano?

AITA NAGUSIA: Beti ta gehiago.

MIURA: Beraz giristino gehiago eta zure erresuma handiago.

AITA NAGUSIA: Ba...

MIURA: Zerendako ez duzue berze aphez batzuek bezala egiten. Zonbeit doatzi herriz herri presikatuz eta bataiatuz. Zuek zerendako duzue lan hori, zeren dako erresuma hori?... Ez da aphezen lana.

AITA NAGUSIA: Ez da gure lana... Ez dugu lurreko erresuma bilhatzen. Bainan hemen Jainkozko lana ez da hortaz kanpo eginen, gisa hortan ditugu arimak Kristoren ganat bilduko.

MIURA: Ez zena berzela egiten ahal?...

AITA NAGUSIA: Giristino horiek galtzen dira berze giristino español eta portugeseekin ibiliz.

MIURA: Bainan ez dute gurekin ibiltzerik. Egon ditela beren oihanetan eta eremuetan giristino gisa.

AITA NAGUSIA: Ez dituzte utzi beren oihanetan. Haizatu dituzte, preso altxatu, esklabo ezarri.

MIURA: Nork egin du hori?...

AITA NAGUSIA: Giristino zonbeitek.

(Un temps de silence)

MIURA: Bainan hemen zuen erresumako jendel ez dute jende saltzalen beldurrik?

AITA NAGUSIA: Ez, jende saltzalek nun nahikoak izanikan ere, ez dute alde hotarat jiteko lanik.

MIURA: Eta zer gertha liteke zuen lekua hartzen balute berze aphez batzuek. Predikatzen ahal da sotana xuri eta beltzarekin?...

AITA NAGUSIA: Ez da hortan aski. Hemengo jendea guri jarria da. Nahi ginduzke zonbeit jenerazionen buruan, beren gain utzi. Ordian beren buruaren jabe izanen dira. Bainan arte hortan gutaz kanpo ez dute berze aphez batzueri obedituko.

MIURA: Ez ditake beraz zueri ordainik atxeman.

AITA NAGUSIA: Diot batere pretentzionik gabe erresuma huntan ez ditakela gure heineko ordanik izan Jainkoaren loriarentzat.

MIURA: Arago iskriba zazu hori.

ARAGO: Jainkoaren loriarentzat.

(Par le couloir arrivent l'évêque, BUSTILLOS, QUESADA, CATALDE)

MIURA: Ongi ethorri Jaun apezpikua. Agur Jaunak. Jar zirezte eta othoi ere galderi eman arrapostu, ez dut onhartuko egia ez den arraposturik.

BUSTILLOS (*à voix basse à QUESADA et CATALDE*): Ez da guk behar duguna. Jesuisten gizona

da.

MIURA: Jaun Aphezpikua, zonbat denbora da Buenos-Aires-eko hirian zirela?...

APHEZPIKUA: Bi urthe.

MIURA: Zure aintzinekoa hila dea?

APHEZPIKUA: Españarat itzularazi dute, bere gain hartu zituelakotz hiri huntako giristinoen pleinuak.

MIURA: Zer zioten Jesuisten batasunaz?

APHEZPIKUA: Huna Español batzu Aita familiakoak; Elhekazkitzu.

MIURA: Sarri eginen dugu; Zuhurrek zer diozu Jesuista horietaz?

APHEZPIKUA: Jesuisten adixkidea niz eta goersten dut European eretikoen kontra egiten duten gudua. Errespetatzen ditut bainan onhartu behar dut hemen duten obra ez dela lehengo xedeen arabera.

MIURA: Zer xederat sorua da zuen batasun, Aita Nagusia?

AITA NAGUSIA: Paganoen giristinotzeko bermatuz aldi oroz lekuan lekuko gisa. Eliza ama saildua eta Aita Saindua ezagutaraz eta maitaraz omnia ad majorem Dei Gloriam.

MIURA: Oh ooo...

APHEZPIKUA: Paraguay huntan, batasun hori bere eginbidetarik baztertu da. Apheztasun bothereaz baliatuz, xutik eman dute hemen berek nahi bezalako erresuma bat. Baliatzen hemengo jendeaz. Pentsa, debekatzen diote españolez eta españoleri mintzatzea. Norbeit ez balinbada Jesuista....

MIURA: Barka. Aita Nagusia?

AITA NAGUSIA: Ene haurrean espainola dut lehenik ikasi halarik ere debekatu izan behar dugu gure erresuman zeren hemen ustelazalen tresna baita.

MIURA: Jaun Aphezpikua?...

APHEZPIKUA: Norbeit Jesuista ez bada ez ditake heien lurretan sar. Gizon espainola arrotz ez deus da hemen, bere arbasoek bildu lurretan?... Berzalde, arimako gauzetan beretan ez dituzte onharzen aphezpikuen eta lekuko aphezen manuak. Ez dakit noren adixkidantzaz baliatuz Espainako Erregeare ganik ardietsi dituzten dretxo bereziak samurarazten baitituzte lehenagoko giristino espainolak.

Guk ez dugu sekulan holako botheririk ukhan. Gizon aipatuak, komertzantak, espainolak, denak heldu zauzkigu pleinuz eta arrangura. Eta aphezpikual ez du deus ikusteko dretxorik. Erresuma hortan sartzea debekatua zaio...

MIURA: Aita Nagusi?...

AITA NAGUSIA: Ez dugu utzi Aphezpikua gure erresumaren bisitatzerat. Haren kondizioeak ez gintuen onhartzen ahal.

MIURA: Zoin ez onhartzen ahal?

AITA NAGUSIA: Jin zitezen ehun gizon, tratulant eta berze Buenos-Airesekoak. Salatu nahi ginuzten. Ez dugu berze aphezer kondurik emaiteko. Onhartuko ginduen Aphezpikuaren legezko bisita baina ez hola.

MIURA (à l'évêque): Egia dea nahi zintuela ehun gizon zurekin?

APHEZPIKUA: Sobera ausart izanen nintzan bakarrik jinez edo aphez zonbeitokia. Gauzak garbiki erranen ditut. Ene aintzinekoa bezala Espainarat berriz igorria baniz ere, zab zabalduko daukitzut begiak, Jaun Enbaxadorea eta erranen nolakatu duten gure erlisione saildua, hemen. Aphezen estatua zikhindu dute, lur huntako erresuma kargua hararaziz. Erlisionaren estakurian, xutik ezari dute xixtima bat jende horiek erkariko zuena, hazkurri, soineko, atherbe eta segurtasun. Pagano horietarik egiazko giristinoak egin orde, lurreko atxikimendu tzar bat erakusten diote. Kristorek ez balinbadiote segurtazen ogia haragia eta dute belharra, ez dute haren axolarik izanen. Prediku alkitik ez bada Jesuista mintzo bainan berze aphez bat, jende horiek irri eginen dute Kristoren erranez.

Horra zertaratu duten gure erlisione saildua Paraguay aldean Jaun enbaxadorea ikus zuhurrek.

MIURA: Elizan affera da hori. Erromak luke behar auzia trinkatu.

APHEZPIKUA: Frangotan jadanik hel egin dut Aita Sainduari. Bainan Euripa zolatik so eginez Paraguay huntarat ez da ohartzen misione horren ederra baizik.

MIURA: Eta Aita Saindua ararteko, zure aphezek ardiesten balute hemen sarzeko eta mintzatzeko baimena?...

APHEZPIKUA: Zer abantail guretzat, eta orduan hainitz gauzek kanbio lukete.

MIURA: Milesker erran dituzun horietaz, Jaun Aphezpikua. Argitu gituzu. Villano segi zazu Jaun aphezpikua eta kasu egizu atheak zabalik izan dituen.

(*L'évêque s'incline légèrement et sort*)

MIURA (à *BUSTILLOS, QUESADA, CATALDE*): Eta zuek Jaunak pleini zirezte Jesuisten Batasunaz?...

BUSTILLOS: Jaun Enbaxadorea, Josep Bustillos niz española.

ARAGO (*il écrit*): Josep Bustillos.

BUSTILLOS: Horra Garcia Quesada jauna tratularia, eta Alvaro Catalde tratularia hau ere. Hiruak española gira.

ARAGO: Garci Quesada, Alvaro Catalde..

BUSTILLOS: Horra eta orai, Jaun enbaxadorea, eta orai hemendik joaiterat utziko gituzu. Zatozte jaunak, ez gaituzte gu xurituko. Zatozte...

MIURA: Zer dira elhe horiek?...

BUSTILLOS: Hamar urthe hotan ikusten ditugu zu bezalako enbaxadoreak. Ez zauku batere laket hemengo jostetaño hori. Hemen zure galdeeri arrapostu egiten dugu, elheka ari gira eta denbora berean gure langileak eskapatzen zauzkigu Jesusiten ganat. Paranako ur hegian Jesuisten puskak kargatzen dituzte, eta gu hilargiari so eta zergak paga. Guk galdegin ala haizeari thu egin. Bainan zaude "Bakotxak bere, Jainkoaren alde" Agur;

(*Il s'en va suivi de QUESADA et de CATALDE*)

MIURA: Arago ekarazu gizon hori gibelerat.

(*Il conduit BUSTILLOS devant MIURA*)

Ez dakizu naski noren aintzinean ziren? Inkesta eginen dut nahi dutan bezala. Emazu ene galderi arrapostua. Eta lehenik hemengo gizonetarik zonbat dira zure muthil?

BUSTILLOS: Sei ehun

MIURA: Bataiatuak direa?...

BUSTILLOS: Denak katoliko onak, ni bezala.

MIURA: Ordua zertako eskapatzen dira Jesuisten ganat, han hoin hersatuak balinbadire?...

BUSTILLOS: Aita Jesuistek jenderen liluratzen badakite. Bitzale hautak hiri eta herrietarat igortzen dituzte, beren lan lekuetarik ihes egiteko burua beroazten diote. Horra zertako giren lan ponduetan langilerik gabe, guhaurek mailia maiz hartu behar. Bainan zaude hori hori astea da oraino. Utzkitzue berak, eta erran zerbeitxka irrituko. Hainitz urthe gabe, gu "español tzarrak" itsaoradino urrundua izanen gira; eta Paraguay huntan Jainkoaren Erresuma ethoria izanen da, erran nahi dut Jesuisten Erresuma beren mendekoak dituztela jori eta gizen. Bainan hori Jaun Enbaxadorea berdin zauzu ohore eta elhe eder gose baitzira.

Galda gizon hor, galda othoi gure herri eta herrietan horien "girstino errepublikaz"

QUESADA: Tratularia niz. Dutea landatzen dugu, eta lan hori dorpea zauku. Indianoak alferak dira jatea dute bakarrik galdatzen. Mementoan, dutez ithoak gira eta Jesuist horiek guriaren orde berena dute saltzen. Hor ez balire izazn affera gaitzak egin giniozke eta Erregearek ere izan lezake abantail... Zer irabazten du horietarik?... deusik... deusik gusta zaizko izaitekotz... Jakinian niz Jauna... Badakit hiruetarik biga Españako erremuak Elizaren eskuko direla... Erretor eta fraileak gizentzen ari dira, populua mihia luzatuz dagolarik. "Aphezpikuak dueno makil, zorroa du biribil" bainan jendeak, iguzkia ezaten ez den erresuman, miserian etsituak dagotzi. Horra jauna zer erran nahi nuen. Othoi egin pentsaketak.

CATALDE: Tratutik bizi niz orai ni ere... Bainan lehen soldado nintzen, eta ezagutzen ditut gerlako gauzak. (*en montrant OROS*) Galda zakozu zertan duen, armada. Uste baduzu Jainkoaren baitan fida direla bakarrik. Badute armada bat ederra, arma egiteko olak, armategiak behar baino gehiago. Badituzte planak "zer gertha ere" alabainan. Behar orduan badakikete nun eta nola pitzaraz gerla. Horra nere ttipian zer nuen erraiteko.

AITA NAGUSIA: Uzten banauzu Pedro Jauna akusazione horieri berehala arrapostu eginen dut.

MIURA: Ixtant bat. Ekarazkitzu zure apezak hunat.

AITA NAGUSIA: Ongi... Libermann, Clarke eta Oros aitak.

MIURA: izkribatu duzu.

ARAGO (*il lit*): Jendea liluratu... Traumaltzurak armada...

MIURA: Ederki

AITA NAGUSIA: Barkatu bi hitz uzten banauzu Pedro Jauna.

MIURA (*poli*): Othoi ixtant bat. Gero ikusiko dugu. (*aux trois colons*) Orai joaiten ahal zirezte, zuek.

BUSTILLOS: Maite ginuke solas horiek berak erraiten denen aintzinean.

CATALDE: Utz gitzazu Jauna...

MIURA: Joaiten ahal zirezte. Hep (*Des soldats viennent du couloir*) segitzkitzue Jaun horiek eta athea libra.

(*Ils sortent. LIBERMANN, CLARKE, OROS arrivent*)

MIURA: Moltsero...

CLARKE: Ni niz.

MIURA: Egia dea zuen Erresuma tratulan espagnolaren kaltetan dela.

CLARKE: Ez da egia.

MIURA: Zuen prezioak ez dira ahalago, hala nola dute beharrentzat?...

CLARKE: Ez kariago saltzen dugu.

MIURA: Beraz zertako zueri erosten dute eta ez Espagnoleri?...

CLARKE: Cornelis jaunak berak erranen dauzu, egun berean erosi dauku dute beharra.

MIURA: Villano zoazi haren bilha... Libermann Jauna.

LIBERMANN: Zuri nago.

MIURA: Egia dea zuen ganat heldu zauzkizuela indianoak Espagnolaren artetik eskapaturik?...

LIBERMANN: Zorigaitzez maiz gerthatzen da...

MIURA: Zeren gatik hola lekuz kanbiatzen dira?...

LIBERMANN: Espagnolak esklabo lanez ithoak atxikitzen eta jotzen baitituzte.

MIURA: Eta zuek nola gatzigatzen dituzue?

LIBERMANN: Lehen aldian abisu bat. Bigarren aldian ogoi ta borz makil kasaka behar orduan zonbeit ilhabete preso.

MIURA: Hiltzerat kondenatzen dituzue?...

LIBERMANN: Hori sekulan. Ez dugu beharrik; Ez da ohointzarik, ditugun ontasunak denendako dire. Nehork ez du hilen diruarentzat. Ez da dirua ezagutua hemen.

MIURA: Ez duzue dirurik erabiltzen?...

LIBERMANN: Ez eta sos bat ere. Zeren dako?... Jendeak baditu behar dituen gauza guziak... Ez da pagatzerik... Hemen ezagutua den balioa da lana.

MIURA: Oh hoo... Zer demuntre duzu Erresuma hau?

LIBERMANN (*satisfait*): Ba... naski...

MIURA: Bainan halere norbeitik hiltzen badu? Ez dira dudaike zuen jendeak aingeruño batzu??

LIBERMANN: Egia hori. Noizetik noizerat gertha ditake. Orduan hiltzailea herritik kasatzen dugu.

MIURA: Norat igortzen duzue?...

LIBERMANN: Nahi duen lekurat; Libertatea zer den, hirietan ala berzetan, jastatzen ahal du.

Bainan ez da luzazko. Delako girstino on heek berriz biltzen dute.

MIURA: Milesker Jauna...

(*CORNELIS entre*)

MIURA: Cornelis Jauna arrotza zira ez dautzut beraz deus sinarazten ahal...

CORNELIS: EZ duzu beharrik, bainan ohartarazten zaitut zuzen kontra atxiki nauzula hemen.

Gure enbaxadorea Madrilen izanen du lan. (*à ARAGO*) André Cornelis Rotterdam;

ARAGO: André Cornelis.

MIURA: Zertako erosten duzu dutea hemen, izaiten ahal duzularik dute bera merkeago berze batzuetarik?...

CORNELIS: Merkeago ba; Dute bera ez... Dute beharra behar da ezagutu. Hauta da ontsa lantua delarik eta altxatua aberasteko gutziarik gabe... Ez dute denek hori egiten ahal?... Jesuistak hortakoak dira, kausitzen dute. Eta hemen indianoak lana maite omen dute. Bitxi da?

MIURA: Aditu dut alta alferrak direla?...

CORNELIS: Ba esklabo gisa, azotearen menean, alferrak dira. Bainan egunean sei oren lan, soinuarekin eta ontsa janez, Elizako ofizioak ahantzi gabe, ez dira hain alferrak.

MIURA: Soinua aipatzen duzu?

CORNELIS: Zer ez dakizu?... Jesuistek soinua handizki baliatzen dute. Gaitzak dira jauntto horiek. Lehenago beren tresna bakarra soinua zuten. Hunarat ethori diren lehen Jesuistek beren aintzinean bazituzten bethi soinulari andana bat. Hori zuten beren armada. Barkoan urak jeusten zituzten eta bazteretatik indianoak heien ondorik sugeak bezala xoraturik. Orai hemengoak dira soinulari, eta Jesuistek arazten dituzte gehiago lan eginarazteko.

MIURA: Eta zu kurritu zira erresuma huntan?..

CORNELIS: Ba, ni berzeak ez bezalakoa niz. Badut ibiltzeko baimena. Untsalaz nehork ez da erresuma huntan sartzen ahal, bereziki katoliko españolak. Bitxi da hori...

(*QUERINI a un mouvement vers MIURA*)

MIURA: Querini Jauna?

QUERINI: Barka ene ausarzia, nahi nuke galde bat egin lekukoari?

MIURA (*très poli*): Egizu...

QUERINI: Protestant zira?

CORNELIS (*souriant*): Zakuz egin gizona. Halere maite ditut Jesuistak. Bitxi zauzue hori?... Bainan orai protestant baten solas ederrenek ere ez diote kalterik eginen (*en désignant les jésuites. À MIURA*) Ez da Egia (*à QUERINI*) Berze galde bat?...

QUERINI: Ez bego hortan...

MIURA: Diozu beraz gogotik pagatzen duzula karioago horier Epañoler baino?

CORNELIS: Hura eta bera. Jesuistek arthatu dute amodioarekin dute-belharra. Epañolak aldiz bortxan eta herran eginarazi dute. Eta horek gustu bat emaiten du duteari, edalek ere ezagutzen baitute.

MIURA: Milesker. Behar zaitut bizkitartean galdegin Ikasetxe huntarik ez urruntzea.

CORNELIS: Apezpikua joan da. Epañol tratulariak ere. Eta ene gisako gizon bat atxikiko duzu?

MIURA: Harazu pazientzia.

CORNELIS: Beherean afferak gaizki doatzi. Jakin dukete zer pasatzen den hemen. Ez zauzu uste Jaun Enbaxadorea. Ni kontent nintake jendeño horiek dena pekoz goratzen balute. Ez adiorik Jaunak.

(*Il sort*)

MIURA: Libermann eta Clarke Aitak joaten ahal dira. Oros aita?

OROS: Jauna...

MIURA: Zoin dira hemen zure karguak?

OROS: Soldado izan naizelakotz, eman dautate erresumaren begiratzea,

MIURA: Nere konplimenduak... Esker mila Oros Aita

(*OROS sort*)

MIURA: Arago, emanazazu paper andana hori... (*il parcourt celui-ci*)... Lekukoak adituak ditugu bainan bada gauza bat Aita Nagusiak eta nik segeretuan atxiki behar duguna. Erremerziatzen zaituztet... Villano jeuts zite soldadoekin eta artha harazu gu biak bakarik egon giten.

(*Tous sortent sauf MIURA et le Père*)

MIURA: Ageri da funtsil gabe akusatuak izan zireztela.

AITA NAGUSIA: Pentsu nin berme eta erne egonen zinela.

MIURA: Ez duzu Erregeari desobeditu?...

AITA NAGUSIA: Ez sekulan.

MIURA: Ez duzu populua esklabo?...

AITA NAGUSIA: Jendea hala ez den erresuma bakarretarik girela erraiten ahal dugu.

MIURA: Ez zirezte tratuan irabazien baliatzaile?...

AITA NAGUSIA: Protestant batek berak aithortu dautzu.

MIURA: Ez duzue zilhar edo urhe-miarik gordetzen?

AITA NAGUSIA: Frogatu du egiazko zoriona populu batentzat ez dela urhez edo zilharrez egina.

MIURA: Bizkitartean itsuski zikhintzen zaituztete.

AITA NAGUSIA: Zuk bethikoz garbituko ahal gaituzu?

MIURA: Jadanik kondenatuak zirezte. So egin gabe eta frogatu gabe, onhartu dituzte zue salatarien erranak. Jujamenduak ponduz ponduz errepikatuko dauzkizue. Ikus zuhaurrek. (*il lui passe un pli, le Père le prend lit et regarde Don MIURA*)... irakur azu.

AITA NAGUSIA: "Frogatua izan delakotz Paraguay eskualdean, Jesuistak jainean gure menetik berexi direla eta, erlisionaren estakuruan ene indiano jendea esklabo daukatela, aberasten direla miak gordez..." Frogatua! Nork... Nork...

MIURA: (reprend le pli et continue la lecture) "Jainkoak ene eskuetan ezari botherean manatzen dut Jesuisten batasuneko partalier guziak barea ditezen. Heien erresuma Españaiko erresumari berriz juntatua izanen da eta ontasunak bahituak. Madrilen egina, mila zazpi ehun eta hiruetan hogoi-ta zazpian, urtharrilaren bian. Guk Erregea."

(*Il restitue le pli au Père*)

AITA NAGUSIA (*calme*): Paper horek ez du baliorik. Erregea enganatua izan da.

MIURA: Erregea enganatua izan da.

AITA NAGUSIA: Zer egin gogo duzu beraz?

MIURA: Ez dezaket jujamendu hau obra.

AITA NAGUSIA: Argitzazu Erregea. Gure salbatzailea zira. Gure erresumaren salbatzeko Jainkoak hautatu zaitu.

MIURA: Erregea argituko dut. Erranen dakot nola maltzurki akusatu zaituzteten. Bizkitartean zuen erresuma... ba zuen erresuma galdua da.

AITA NAGUSIA: Nola?...

MIURA: Zuen erresuma galdua da.

AITA NAGUSIA: Galduak girela?...

MIURA: Ba denak.

AITA NAGUSIA: Hobenik ez dugula erraiten daukuzu eta desegin nahi gituzu?

MIURA: Hobenik, hobenik. Bethi hoben egiten da norbeiti, gisa edo berze nehor ez da itzalik gabe. Ez du horek galtzen erresuma bat. Zuen hutsa handiagokoa da.

AITA NAGUSIA: Handiagoo??

MIURA: Arrazoi duzelako hutsa.

AITA NAGUSIA (*soulagé*): Arrazoin dugu...

MIURA: Bainan ez dezakegu hori barka. Eta arrazoin duzelakoan, izanen zirezte deseginak, urrikirik gabe deseginak.

AITA NAGUSIA: Erhotu zira othe?...

MIURA: Hala ninteke berzela mintzo banintz. (*un temps*) Zer egin duzue Erresuma huntaz (*il montre la carte*). Zuek gabe sekulan kurrituko ez gintuen oihan eta larreki hor zer dire? Amodioaren eta zuzenaren erresuma... Ereiten duzue eta uztak biltzen irabaziak gutzian gabe. Indianoak goستن zituztete, eta gure españolak uzte dituzte. Zuen salgeiak mundu guzian dabilta eta español tratulariak doatzi peko errekarat. Hemen bakea eta miseria eta aiten herrian miseria eta kexua. Odolaren gostuz guretu dugun basherria hau, ederzen duzue gure kaltetan. Zuek, populu ttipi bat gure erresuman, gu nagusiak, ikharan gaude zuen etxenpluari beha.

Gu, Gerlaren bidez hedatzen gira, zuek, bakeari esker. Purruskatzen ari girelarik zuek biltzen ari zirezte. Orai badituzue hogoi-ta hamar eskualde, bihar hogoi-ta hama borz, gero laureta hogoi, lur guzia... Noiz???

Uste duzue horri behar gaudela, deus egin gabe zuen trabatzeko. Berandu gabe behar zuztegu kasatu. Lekutu behar duzue, zuen entseiu onaren egiterat utzi zaituzteten botherearen izenean. Lekutu enseiu horrek finitu behar du lanjerosa heldu baita. Fini.

AITA NAGUSIA: Enseiu hori sakratua zauku. Nork ere hunkitzen baitio Jainkoa du laidoztatzen.

MIURA: Ez aipa erlisionea, gure abantalaz delari auzia.

AITA NAGUSIA: Errespetatu behar zaitut Erregearen anbaxarore gisa. Zer deliberatu duzu?

MIURA: Jujek deliberatuaren obratzerat ezin mentura. Froga faltsuak badira eta aise agertzen ahal dira.

AITA NAGUSIA: Berdin galduak gira zure ustez?...

MIURA: Ba, jendearen bixtan hobendun gindezke. Zeren hainitzek igor bailezakete piko andanat ospinian pasatuak.

AITA NAGUSIA: Beraz zer deliberatzen duzu?...

MIURA: Zuen eskualdeak behar dituzue Erregeari gibelerat itzuli, eta zuk, duzu hori behar manatu.

AITA NAGUSIA: Ez da munduan gizonik hortaraziko nuenik.

MIURA: Zure hortarazteko badut aski bothere.

AITA NAGUSIA: Ederki. Entsea zite.

MIURA: Errefusa eta Jesuisten Batasuna España guzitik kanpo... Egin pentsaketak. Frantziatik eta Portugaletik kasatiak ziezte. Hemendik joan zihaturen nahitarat eta, Españan uzten ziztegu bizitzerat.

AITA NAGUSIA: Aita Jeneralaren eskuetan baizik dago probintzio baten sortea?

MIURA: Jadanik oihu egin dugu Aita Sainduari eta Apez Jeneralari. Hainitz urthe hotan, xifrituak gaude hek hitzeman inkesten behar. Berexi zireztela jakin araziko dugu Aita Jeneralari.

AITA NAGUSIA (*bouleversé*): Tratulari bihotz gabe bat zira.

MIURA: Paraguay erresuma edo zien batasuna.

AITA NAGUSIA: Ez eni arraposturik berehala galda?...

MIURA: Ez dezaket idurika. Bat edo berzea...

(*OROS entre précipitamment*)

AITA NAGUSIA: Aita Nagusia, berri batek jendeak iziarazi ditu. (*à MIURA*) Zure soldadoek diote fure erresuma suntsituko duzula.

MIURA: Ez da xuxen. Aita Nagusia.

AITA NAGUSIA:....

OROS: Aita Nagusia zuen manuer nago. Gure soldadoek eta zaintzale beltzek harmak khendu diozkate españoleri. Jazartu girela erranen dute ez baditugu geldiarazten.

AITA NAGUSIA:...

MIURA: Emanuzu arrapostua.

AITA NAGUSIA (*lentement*): Egia erran, Jainkoaren Erresesuma nahi dute suntsitu...

OROS: Zure manuer nago... Aita Nagusia.

MIURA: Pentsaketak eginzkitzu Alfonso Fernandez. Hemen, lege bat da bakarrik Erregearena.

AITA NAGUSIA: Hemengo legea Jainkoarena da. Eta lege hortan berme Jaun anbaxadorea preso altxatzen zaitut. Oros Aita zure gomendio dago hunen bizia.

OROS: Jaun Anbaxadorea zure ezpata othoi

MIURA (*reste un instant indécis, puis il tire son épée, lentement la remet à Oros*): Eta ez duzue oraino amor emaiten?...

HIRUGARREN ZATIA

(Réunion des Pères. Le Père Provincial est derrière son bureau, les pères devant la carte de Paraguay. A gauche en spectateurs QUERINI et CORNELIS)

AITA NAGUSIA *(au débit hésitant puis de plus en plus passionné)*: Zuek Parana eta Uruguayeko ibai bazterretan ibili ene adixkideak, dena Españako Erregearen menekoak *(il se découvre)* gure dolua garratza izana gatik, gure burua xuritu izan behar dugu, gezurrez eta faltsukeriaz Erregearen ganik bothere osoa ardietsi dituzten batzuen kontra. Horra ene eskuan Erregeari khendu dioten manua. Akusazailek gure gain bota dituzte berek egin gizakiak.

Gure lana belzten dute eta gehiago dena Erregea dute engantzen. Ez dugu onhartuko ministro eta kargudun zonbaitek gure Erregearen salbamendua irriskuan ezar dezaten beren sakelak bethe behar ditien jukutria batean truk.

Erregearen gizonek ponduz pondu nahi dute manua segitu. Legeak ez du baliorik, frogak faltsuak diru, inkestak erakutsi dauku... Erregearen bothereak dauzkate.

Bainan... bere bothereaz baliatzen dena Jainkoari oldazeko kargu guzietarik khendua izan behar du, kalterik gehiago egin ez dezan... Bihurtu behar dugu, erlisioneak berak dauku hori manatzen.

Populua beraz ezti dadiela. Aita Buruzagiek ikusiko dute zer egin.

(Il s'assoit. OROS, LIBERMANN et CLARKE s'approchent de lui. Il leur parle à voix basse)

OROS: Aita Nagusiak nahi du denak bil gitezen oren baten buruan Ikasetxeak barne handirat Españolen jujatzeko

(Tous les Pères sortent)

CORNELIS: *(se précipite sur le Père et lui secue violemment la main)* Ez nuen sekulan sinesiko... Sekulan... Egitate ederra hori... ba zinez... Kasik...

AITA NAGUSIA: Erran gustian...

CORNELIS: Erran nahi dut damu da ez baitzare protestant. *(Il sort, le Père veut également sortir, mais se trouve arrêté par QUERINI)*

QUERINI: Kristoren graziaren eta amodioaren gatik emadazu ixtant bat zurekin solastatzeko

AITA NAGUSIA *(étonné)*: Kristoren graziaren eta amorearen gatik...

QUERINI *(à voix basse)*: Kristoren graziaren eta amodioaren gatik.

AITA NAGUSIA: Ba segurki, jar zaite. *(il lui offre une chasse en face du bureau)*

QUERINI *(très doux)*: Milesker bainan ez hemen.

AITA NAGUSIA: Segitu nahi nuzu Ikasetxeko barne handirat?

QUERINI: Ez. Baina memento batetarik berzetar utzi beharko zaitut. Hortakotz, galdatzen dautzut othoi... *(geste de la main)*

AITA NAGUSIA: Segurki *(il sort de derrière son bureau)*

QUERINI: Hor jartzeko fagorea. *(il offre au Père la chaise en face du bureau)*

AITA NAGUSIA: Nola hori...

QUERINI: *(s'installe lui-même dans le fauteuil du Père)*

AITA NAGUSIA:

QUERINI: Jar zaite, othoi...

AITA NAGUSIA: Nor zira.

QUERINI *(toujours assis avec humilité)*: Minimus servus servorum in nomine societate Jesu...

AITA NAGUSIA: Nor zara bada?

QUERINI: Erran dautzut Jesuista xume bat.

AITA NAGUSIA: Ez dut sinesten ez zira Jesuista.

QUERINI: Aita Jeneralak nahi izan du bere ordaina manera huntan bestiturik igorri.

AITA NAGUSIA: Zu zira mezularia. Lanjeraren mementoan Jainkoak igortzen zaitu. Badugu zure laguntzaren beharra.

QUERINI *(gravement)*: Lanjerra. *(il lui passe une lettre)* Horra nere paperak.

AITA NAGUSIA: *(s'assoit, lit, se lève)* Zure manuen beha nago umilki.

QUERINI *(se lève)*: Hemen mintzo niz Aita Jeneralaren izenian. Badakizu hori.

AITA NAGUSIA (*à voix basse*): Ene Egiazko Aita.

QUERINI: Eta manatzen zaitut berehala zure bothereak ezar ditzazun Anbaxadorearen eskuetan.

AITA NAGUSIA (*un cri*): Ene Aita.

QUERINI: Berehala zure bothereak ezar Enbaxadorearen eskuetan.

AITA NAGUSIA: Bainan zure begiez ikusi duzu nola gaizki erabiliak gitzuten.

QUERINI (*très sec*): Ez nezake onhar berdin egin dezagun.

AITA NAGUSIA: Anbaxadoreak gaitu bortxan erabili.

QUERINI: Ez diot Anbaxadoreari arrazoin emaiten.

AITA NAGUSIA: Gure etsaiak ausar batzu dira, jenderen sal erosle batzu...

QUERINI: Badakit.

AITA NAGUSIA: Erregea heien jukutriaz eta gezurrez enganatua izan ea...

QUERINI: Zer munta du?...

AITA NAGUSIA (*montre l'édit*): Sekulan Erregeak ez zuen manu hau sinatuko ezagutu balitu akusatzailen xedeak.

QUERINI: Damu litake. Manu hori pondu onean heldu zauku.

AITA NAGUSIA: Bainan itsu zirea, enbaxadorea huts izigarri horen hobendun dago.

QUERINI: Zu zira itsu, Paraguay huntan egin huts izigarria ez ikusteko.

AITA NAGUSIA: Ez zaitut konprenitzen.

QUERINI: Galda dezagun Jainkoari gure azken orenean huts izigarri huntaz kargatua za izaita.

AITA NAGUSIA: Zer zen gure hutsa?...

QUERINI: Zer zen gure hutsa?... gutizia eta deohorea gain ginetik nagusitua den mundu huntan, uste izan dugu Kristoren hitza obratzea. Gure obrez xoraturik, populua behar dago noiz libro utziko ditugun. Botheredunen kontra, gure laguntza nahi ala ez igurikatzen du. Hots, beha dago Jainkoaren erresuma mundu huntan obratua izan dadin. Eta guk jakinikan ere funtsean eta indar handirik ez dugula. Indar horek bere saretan bildu gaitu eder eta errex iduri baizizaukun.

Guk, Aita Nagusia, guk, mundu guzian, dohakabe, etsitu, lehertsuak daudenak berze

Erresuma batetako bidean ezarri, herioak du bakarrik hango athea zabalduko. Han

Kristorek jukatuko ditu gaxtaginak eta berzeak. Han bakarrik, sari eta gaxtagu

partituak izanen dira merezimenduen arabera. Jainkoaren erresumak ez du mun du

huntan bururatu behar.

AITA NAGUSIA: Beraz bortxatzen gaituzten alderdia harzen duzu?

QUERINI: Ba segurki. Gure lekua haien alderdian baita. Gizon borthitz eta azkarren bihotzetan ditugu pizarazi behar girixtino bertuteak. Zertan diren gure ahalk jakin behar ditugu. Orai arte, ezagutu ez ditugula hemen, iduri luke. Ez da oraino berantegi.

Sakrifizio bat galdetua zauku: Jesuisten Batasunak Paraguay huntarik lekutu behar.

AITA NAGUSIA: Ehun eta berrogoi-ta hamar mila giristino sakrifikatu behar ditugu.

QUERINI: Hori egiten dugu Ad majorem gloriam Dei.

AITA NAGUSIA: Eta zonbat ehun mila pagano giristinotu nahi dutenak?...

QUERINI: Ez dugu giristino horietarik nahi. Ez duzu ikusten asurantz baten pare daukatela gure erlisione saindua?... Haren ganik dute uste izaita, bizitzea, sosegua, gida estia et zuzena beren harat hunatetan. Bainan Jainkoa ez da politikeroa. Eta gu ez dugu hemen berzerik egiten. Eta politika hori beita gehiago Europako Errege katolikoan kontra da? Hastapenean ez ginena heien zerbitzari aintzinatuenak. Orai beren etsaiantz harzen gaituzte. Hastio gituzte. Herra hori ondolik dugu eta gure Batasunaren galbide, ukho egiten ez badiogu Paraguay-ko Erresumari.

AITA NAGUSIA: Gogoan iragan zazu zer fundituko ginduken sekulakotz. Populu etsitu eta esklabo horiek esperantza dute egun batez, fede garbia eta zuzentasuna nagusituko direla. Eta galaraziko diotegu esperantza hori?

QUERINI: Amets hutsak horiek... Hobe ginduke arimak salbatzea.

AITA NAGUSIA: Jende horiek uzten baditugu nagusi borthizen menean, ez ditugu sekula salbatuko heien arimak. Behar dugu zintzoki jende xehe eta dohakaben alderdia hartu.

QUERINI: Hori dugu preseski egin behar. Ez litake zuhurtzia; eta kalte handia egin lio gure Erlisione sainduari. Ez gira laneko tresna bat baizik Aita Sainduaren eskuetan.

AITA NAGUSIA: Aita Sainduak badazki gure enseiguen ondorio onak.

QUERINI: Ez zaizko laket.

AITA NAGUSIA: Aita Sainduak badaki berze arima batzu biltzen ditugula.

QUERINI: Aita Sainduak badaki egun guzietz gure erresuma handitzen dela eta egun guzietz

borthizkiago akusatzen gaituztela.

AITA NAGUSIA: Aita Sainduak ez dezake erresuma hau utz.

QUERINI: Nahiago ginduzke Paraguay huntan uts egiten berehala.

AITA NAGUSIA: Horrek erran nahi luke ez girela giristinoki jokatu.

QUERINI: Baditake. Bainan fedea garbi egonen zen. Gu ohartu, gabean Satan sartu da gure obran. Differentziarik badea oraino Jesuisten Erresumatik Calvin Protestaren erresumarat?

Xantza gohorra ez baitugu bidean kausitu dominikanoak. Zeren gure erhokeriak heien auzitegiatarat igorri gintuen.

AITA NAGUSIA: Bortxatu gabe joan nintake jujen aintzinerat. Ez litake munduan aski kadenik eman nahi ez nukenik, Jainkoaren loriarentzat.

QUERINI: Aita Nagusia zira. Ez dautzut xeheki erraiterik zer den bethi obeditzeko botua... Ene erranak eta Erregearen manuak obratuko dituzu.

AITA NAGUSIA: Ez nezazula hortarat bortxa... Lanoki galdatzen zaitut... Zure manu bakotsaz eginen dut ene sineste minena... Hemendik aintzina, ez niz zure zerbitzari xoil bat baizik. Bainan urrikal zaite ehun eta berrogoi-ta hamar mila giristino horietaz. Ez utz jende saltzalen eskuatarat.

QUERINI: Kasu emazu. Batasunaren irriskua bera irriskuan dugu.

AITA NAGUSIA: Erresuma kurri zazu, zer den ikus zuhaurrek eta ezagutaraz zure burua Enbaxadoreari.

QUERINI: Ezagutua egon gabe behar dut egon, zer gertha ere. Nehori ez aipa jesuista nizala eta zetarat jina nizan.

AITA NAGUSIA: Holakorik neri ez galda. Ez dezaket.

QUERINI: Jesuista batek zer ez dezake. Jende xehia eta dohakabea hobekio izanen dea, mundu zabaletik lekutuak izanen girenean?... (*après un temps, très doux*) Beraz Paraguay-ko Aita Nagusiak amor emangu. Anbaxadoreari obedituko du eta barkamendu galdatuko asaldatu delakotz.

AITA NAGUSIA: Ez zadazula hori mana... Ez dezaket... Othoi, othoi...

(*Il s'agenuille*)

QUERINI: Emazu arrapostu, zuzen da ene manua?...

AITA NAGUSIA:...

QUERINI: Nahi duzia izan ene eskuan "gizon xaharrak zenahitako dabilen esku-makilaren pare.

AITA NAGUSIA: (*le Père baisse lentement la tête*)

QUERINI (*à voix basse*): Barka zadazu tronpaturik niz naski... Uste nuen mintzo ninzela Paraguay-ko Aita Nagusiari...

AITA NAGUSIA (*sursautant*): Zuzen eta ona da zure manua. Ene indar guziez betheko dut. Batasunare eskuko makhil izanen niz, deus berzerik...

QUERINI (*en relevant le Père*): Kristoren grazia eta amodioa zurekin izan ditela bethi. (*OROS entre*) Eta milesker errezebiturik, Aita Nagusia. (*il lui donne l'accolade*)

AITA NAGUSIA: (*sans voix*) Ez adiorik Querini Jauna

(*QUERINI sort*)

OROS: Denak bildurik zure beha gaude.

AITA NAGUSIA: Badakit ene beha zireztala.

OROS: Gogotik bermatu beharko dugu gure Ikasetxe hunen begiratzeko.

AITA NAGUSIA: Nik uste berzirik ere beharko dugun??...

OROS: Bustillos eta Quesada entseituko dira beren gizonen armatzerat gure kontra españolen sustengatzeko.

AITA NAGUSIA: Arte horta zerbeit gerta ditake.

OROS: Segur niz leku gerta ditake.

AITA NAGUSIA: Leku gehienetan, ba.

OROS: Hemen menturaz galduak gira, bainan erortzen bagira ere ohoreki eginen dugu.

AITA NAGUSIA: Erortzen bagira... Ikusiko dugu... Uste duzu Español batek ere ihes egin ahal lezakela Etxe huntarik?

OROS: Ez ditake niholaere posible. Zaintzale beltzak athe guzietan dira.

AITA NAGUSIA: Berriz ere, bakerik mintzatuko dut Anbaxadorea. Ezagutzen dut Pedro de Miura Jauna. Badakit ez duela ihes eginen.

OROS: Ez du eginen (*mouvement de sortie*)

AITA NAGUSIA: Oros... Arte hortan zerbeit gertha ditake. Pentsu dut gureak araz nere fida direla?...

OROS: Zer fida, ez dut hit horren beharrik. "Fida dut" nik nere baitan hori ba. Bainan zuri, Ene Aita obeditzen dut. Zuri obeditzen dautzut nihauri desobeditu behar banuke ere.

AITA NAGUSIA: Fida zira neri, Jesuista naizelakotz?...

OROS: Nihauri baino, ene Aita.

AITA NAGUSIA: Esker mila. Zoazi eta igurikaraz lagunak ixtant bat oraino. Anbaxadorea gure presonera elhekatuko dut

(OROS sort. Le Père va à son bureau et commence une lettre, il hésite, déchire plusieurs feuilles, et finit par écrire rapidement. Don MIURA entre)

MIURA: Zure eskuetan gira. Bozkaria zirezte. Auzi bidetan ibili gabe atheratu zirezte? Ahal hori ere baduzue. Bainan sendituko duzue laster zoinbt gusta den gure kontra oldartzea.

AITA NAGUSIA: Ez gira oldartzen, amor eman dugu.

MIURA: Jazaraldi hortan parte hartu duzu, preso egin gituzu.

AITA NAGUSIA: Horiek ere gain harzen ditut.

MIURA: Mementoan iduri zauzu errex dela. Bainan laster ikusiko duzu zer hartu duzun zure gain...

AITA NAGUSIA: Ikusiko dugu berehala. Zure meneko jartzen niz...

MIURA: Ene meneko... Ah... Zure presoner izaki eta nolaz nere meneko jarzen zira.

AITA NAGUSIA: Harazu hau (*Il lui remet le texte qu'il vient de rédiger*)

MIURA (*lit, ensuite*): Zer erran nahi du hunek?

AITA NAGUSIA: Amor eman dut. Ikusi dut hobendun ginela, anbaxadorea legez zabilala. Eta beraz zure meneko jarzen niz... Zure presonera nuzu. Eta ni sumentiturik ere, damurik gabe gaztiga zazu gure asaldura.

MIURA: Ez zaitut batere konprenitzen.

AITA NAGUSIA: Irakurazu nik deliberatu dutan hau Ikasetxeko biltzararen aintzinean. Aita Jesuistek eta indiano nagusiek konprenituko dute.

MIURA: Garbituko nute berehala, hori irakurtzen badiotet.

AITA NAGUSIA: Aita Nagusiaren errana da. Ekaradazu hitz bakar bat ihardokiko duena. Ba ekarazadazu. Ez dakizu zoin itsutuki obeditzen dugua?

MIURA: Zer derasazu, zure eskuetan girenaz gero. Gure gizon inkestariak soldado multzo batzkin suntituko dituzue. Españak zuen gaztigitzerat tropak igorri artean, gerla luze bati buruz apailatuak izanen zirezte.

AITA NAGUSIA: Ez dugu gerlarik nahi.

MIURA: Ah. Ez zirezte fida.

AITA NAGUSIA: Ez gira fida.

MIURA: Eta nahiago duzue zuen presonereri errendatu?...

AITA NAGUSIA: Heiei errendatzen gira.

MIURA: Buru kolpe batek zitia hortaritzen.

AITA NAGUSIA: Ontsa karkulak eginik errendatzen gira.

MIURA (*secouant la tête*): Egiaz ari zirea. Xede horiek berak dituzia?

AITA NAGUSIA: Ene eskua izkribatuak eta sinatuak dira.

MIURA: Horek untsa uzten nu. Bainan segur ere zure gizonak jazartuko zauzkitzu...

AITA NAGUSIA: Bozkarioatan sar zaitte, zure xedea bururatu duzu.

MIURA: Gizon bitziak zirezte halakorik ere. Lehenik, fermuki ihardokitzen duzue eta zuen alderat errespetua pitzarazten, eta gero... bixtan da hola guri ontsa zaukula... eta arras kontent nizala... (*Il s'éloigne puis se retourne vers le Père*) Bizkitartean... ez dea damu?...

(Il sort rapidement)

AITA NAGUSIA (*s'appuie sur son bureau et essaie de dire une prière*): Anima Christi, sanctifica me... Corpus Christi, salva me... Sanguis Christi inebria me... Aqua lateris Christi... lava me. (*il se cramponne qu crucifix*) Jainko Jauna! Sekulan ez duzu lun huntan egon nahi? Zendako?

RIDEAU

LAUGARREN ZATIA

(Père Provincial, LIBERMANN, CLARKE, OROS)

AITA NAGUSIA: Libermann Aita. Zuri eman manua berriz erradazu?

LIBERMANN: Eskualde guzietan, behar ditut prestatu lantegiak español inkestarien eskuetan ezartzeko. Nere gain españolak eta hemengo jendeak ontsa joanaztea. Bazter nahaslea ezaria izanen da kalterik eginen ez duen lekuan... Horra ukan dutan manua... Botua egina dutalaketz obedituko dut... Othoi utz nezazu...

AITA NAGUSIA: Libermann Aita aski hola... Zuri Cllarke Aita.

CLARKE: Manatua izan zaut xeheki erraitea ditugun guziak, zonbat tresna, ekhei eta tresna. Españoleri erakutsi behar diotet nola erabiltzen eta baliatzen ditugun gure ontasanak. Manatua izan zaut deus ez gordetzea. Aita Nagusia, ahal duta zuri...

AITA NAGUSIA: Milesker... Oros Aita zure aldi.

OROS: Izan dituztan manuak errepikatu aintzin, erraguzu zendako ideiaz kanbiatu ziren hola betbetan.

AITA NAGUSIA: Errepika zazu nere manua.

OROS: Denek othoitzten zaitugu: Kristoren amodioaren gatik erraguzu zeren dako ideiak kanbiatu ziren.

AITA NAGUSIA: Nik manatuak gaizki egin orde jakitate eskasian, errepikatu behar dituzu.

OROS: Ez niz lan hori lothuko zuk ideiak kanbiatu arte.

AITA NAGUSIA: Libermann, ximika zazu Oros Aita besoan, othoi... Sendi duzu zerbeit?...

OROS: Ez naiz batere minbera.

AITA NAGUSIA: Ongi. Oros Aita ez baita minbera, ez du estakururik beharik. Zer dautzut manatu?

OROS (*après un effort sur lui-même*): Eskualde guzietan, gure soldado indianoek utziko dituzte gerlako tresnak: harma, tiro-ekhei, kanoi denak estatu onean ezariak izan behar dire españolen eskuetan...

AITA NAGUSIA: Ongi. Arras garbiki konprenitu duzula ikusten dut.

(*Par le couloir arrivent les caciques AKATU et BARRICA avec quelques notables indiens. Les indiens s'inclinent devant le Père*)

AKATU: Zure manuen behar gaude...

BARRIGUA: Españolak barnean zaintzen ditugu. Gudukatzerat emanaraz gitzazu.

AITA NAGUSIA: Obeditu nahi duzue?

AKATU: Obeditu nahi dugu.

AITA NAGUSIA: Umilatuki?

BARRIGUA: Ba, umiliatuki (*le Père les bénit, les caciques plient les genoux*)

AITA NAGUSIA: Lekutu behar duzue hemendik. Sar zirezte zuen herrietan eta zerbitza leialki españolak. Heiek dute zuen lekua hartuko hemen. Hemendik aintzainak horiek dira izanen zuen nagusiak. Gu Jesusen Batasuneko jesuistak uzten dugu Paraguay hau, berze eskualde batean lanean artzeko. Aita Sainduak hala nahi du. Othoi Jainkoaren graziaren erdiesteko, azkar egon zirezte zuen penetan, berme zuen sofrikarlotan, eta kasu guzietan obedizazue. Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenian. Amen.

(*Les Caciques se lèvent et se regardent sans comprendre. AKATU et BARRIGUA s'avancent finalement vers le Père*)

AKATU: Aita Nagusia? Esplika zaguzu solas horiek. Ez dugu konprenitzen.

AITA NAGUSIA: Gu Jesuistek Paraguay uzten dugu.

AKATU (*aux caciques*): Jesuistek uzten gaiztuzte. Joaiten zauzkigu.

LES CACIQUES (*les uns aux autres*): Jesuistek uzten gaituzte...

AITA NAGUSIA: Hemendik aintzina españoleri obedituko duzue.

AKATU CACIQUES: Españoleri?... Españoleri obeditu? Españoleri obeditu?... Jende saltzale hoieri?... Denak hartzen dazkiguteneri?... Ez, Ez, Ez...

AKATU: Españolek esklabo dauzkate jendeak. Hori badakigu. Ez gaituzu utziko Aita Nagusia?...

AITA NAGUSIA: Hartu behar duzue zuen kurutzea.

AKATU: Beren gisa utzi behar ditugu emazteak eta haurrak gure bixtan harzen dauzkutelarik?...

BARRIGUA: Español eskuetarar erori behar dugu, gure burua zaindu gabe?

AITA NAGUSIA: Gogoan emanarazkitzu Jesu-Kristo gure Jaunaren sofrikarioak.

AKATU: Denak galduko ditugu uzten bagituzu... Galduko gure herriak... galduko gure landak... galduko gure arthaldeak...

BARRIGUA: Mana zaguzu, Aita Nagusia, gure punalekin guhaurren zilatzea aldean berze, bainan ez eman gure populu guzia galduko duen manua.

AKATU: Ez dugu Españoleri obeditu nahi.

1 CACIQUE: Gure andreak gogoan ditugu

2 CACIQUE: Gure haurrak

3 CACIQUE: Gure arthaldeak

4 CACIQUE: Gure herriak

5 CACIQUE: Horiek guziak españolentzat?...

AKATU: Españolek gure girstinoak galaziko dituzte.

BARRIGUA: Ez dugu españolen Kristo ezagutzen.

2 CACIQUE: Español girstinoak gaiztoak dira. Dena bere dute.

3 CACIQUE: Zuen kristo ona da. Denak emaiten dauzkigu.

BARRIGUA: Aita Nagusia utz gitzazu zuen Kristoren zaintzerat.

5 CACIQUE: Ereman gaitzazu, zuk girstino gaixtoen gukatzerat!...

AKATU: Ereman gaitzazu gudukatzerat (*il s'agenouille*)

BARRIGUA: Aita Nagudia, ereman gaitzazu gudukatzerat (*il s'agenouille*)

TOUS LES CACIQUES: Ereman gaitzazu gudukatzerat (*Tous d'agenouillent*)

(Le Père demeure immobile, crispé la tête dans les mains)

OROS: Fedea lanjerrean da eskualde hotan, orai aditu duzun bezala Aita Nagusia. Guk ere Kristoren izenean othoitzen zaitugu, ereman gaitzazu denak gudukatzerat (*il s'agenouille*)

CLARKE: Kristoren izenean ereman gaitzazu gudukatzerat.

LIBERMANN: Ez da haratik ez hunatik? Gudua ene Aita, Kristoren izenean! (*il s'agenouille*)

AITA NAGUSIA: Kristoren izenean, Kristoren izenean? (*colère dans la voix*) Norek erran dauzue ene aintzinean belhaunikatzeko? Ez niz ni ez errege ez ministro... Jainkoaren aphez niz... Xuti zirezte.

(Tous se lèvent. Un long silence)

AITA NAGUSIA: Libermann, nahi ditut ikusi goiz huntako bi gizonak. Zoazte zuek.

(Tous sortent, sauf OROS)

AITA NAGUSIA: Oros, erranen duzu Miura jaunari ene manuak obratuak izanen direla.

OROS: Ez dezaket...

AITA NAGUSIA: Zer ez dezake jesuista batek?... Berehala erranen diozu.

OROS: Bekatuan zare. Obeditzeko botuak baliorik gabe da bekaturat eremaiten duelarik.

AITA NAGUSIA: Bekaturat eremaiten zaituztet nik?...

OROS: Bere familiaren hiltzea, ez dea bekhatu handia?... Eta hori daukuzu eginarazi nahi... Ez zira bekatu hortaz kargatua izanen ez zu ez Jesuisten Batasuna, ez baitzitut obedituko.

AITA NAGUSIA: Baina...?

OROS: Nihaur armadaren buru oldatuko niz, eta eremanen ditut indianoak etsaien gudukatzerat.

AITA NAGUSIA: Oros ez zira gehiago jesuista...

OROS: Aspaldian denak hortaratuak bide gira. Jainkoaren bixtan ere baduia jesuista kolorerik... Jainkoak nahi mundu hau kanbia dadila eta Paraguay-ko Jesuistek kanbiatu dugu.

AITA NAGUSIA: Batasunetik kanpo ezarzen zaitut.

OROS: Zu zira zu ihes ari... kanpo ezar nezazu. Errestan ereman nezazue aphez jujen aintzinerat, eta berdin surat. Zuek zernahi eginik ere, jendek ez dute sekulan ahantziko obra hau (*montrant la carte*) Hatsa dutano, oihuka eta gudukatze ahala dutano, beti pobren, ahulen, dohakaben alderdian kausituko nuzu. (*un temps*) Hola zait Jainkoa mintzatzen.

AITA NAGUSIA: Preso altxaraziko zaitut.

OROS: Enseia zaite. Ikasetxeko barne handian kausituko nauzu gure populuaren erdian.

AITA NAGUSIA: Oros...

OROS: Aita Nagusia.

AITA NAGUSIA: Serioski mintzo naiz: Preso altxarazi behar zaitut. Españolek kondenatuko zaituzte, eta nik ez dut zure alderat deus ahalko.

OROS: Enbaxadorea jin dadila harat nere bilha.

(Il sort. KANDIA er NAGUAKU arrivent)

AITA NAGUSIA: Jinarazi zituztet jakiteko zerendako xuxen bathaiatuak izan nahi duzuen. *(ils se regardent sans répondre)* Zerek akulatzen zaituzte Jesu-Kristo gure Salbatzailearen ganat?

KANDIA: Aita Nagusia Jainko hori dugu orai othoiztu nahi.

NAGUAKU: Ba, Jainko hori...

AITA NAGUSIA: Zertako gutarat heldu zirezte? Zoazte Buenos-Ayres-eko Aphezpikuaren ganat.

Eman dezala bataioa zueri eta zuen jende-aldeari. Aphezpikuak ere Kristoren ganat helaraziko zituzte.

KANDIA: Aphezpikuak eman Kristo ez da guk behar dugun Kristo.

AITA NAGUSIA: Ikusten dut nor den zuen Kristo: Erresuma hunen gozamina emanen duena.

NAGUAKU: Ba, hori dugu nahi.

AITA NAGUSIA: Denak emaiten dauzkitzue.

KANDIA: Jaterat emaiten dauku.

AITA NAGUSIA: Jaterat.

NAGUAKU: Bestitzen gaitu.

AITA NAGUSIA: Bestitzen.

KANDIA: Esklabo izaiten begiratzen.

AITA NAGUSIA: Horra: begiratzen zaituzte.

NAGUAKU: Etxeak egiten dauzkigu; harmak emaiten, horrekin azkar gira.

KANDIA: Hura zerbitzatzen bada saria bada.

NAGUAKU: Aita Nagusia, hori da nahi dugun Kristo.

AITA NAGUSIA: Kristo hori dautzuegu ekarri. Adixkide maiteak, enganatu zaituztegu. Jesu-Kristorek ez du nehor begiratzen. Ez du jaterat emaiten ez du ez du ere bestitzen. Bera pobre eta biluzik dago.

(En bas, un bruit et des coups de feu. Le Père fait signe aux caciques de sortir. Il s'approche lui-même de l'escalier)

VILLANO: (à la cantonade) Ah... Zer lan ederra hori...

AITA NAGUSIA *(revient en grande émotion avec VILLANO et ARAGO):* Ene gizonak obeditzen naute. Zuek dituzteia zihikatu... Norek erran dautzue jazarzeko.

VILLANO: Pedro de Miura Jaunak. Aski behar egona zen. Makila bi burutarik daukazu. Aspaldion finitua izana beharra zuen affera horek.

AITA NAGUSIA: Miura Jauna elhekatua dut. Hitzeman daut arras arte behar egoitea.

VILLANO: Arratsa da. Ez ziztela gehiago hemendik mugi. Aski malhur baduzu orai artea pitzarazirik.

ARAGO: Ikusten duzu zuen indianoak, bihurzen direla.

AITA NAGUSIA: Ikasetxea nik bakean atxiko dut, utzi hori nire gain...

(MIURA entre)

AITA NAGUSIA: Pedro jauna geldiarazazu gudua...

MIURA: Berantegi... Oros Aitak berotu ditu indianoak. Ez ginduen hori onharzen ahal.

AITA NAGUSIA: Galdegin dautzut zonbeit orenen ephia?...

MIURA: Zuen aintzindarietara erreezu: harmak utz.

AITA NAGUSIA: Mintzatuko nizaiote. Geldiaraz gudua.

MIURA: Arago eta Villano segi Aita Nagusia. Hek harmak pasuaten badituzte, gureak geldiaraz.

(Le Père s'approche de l'escalier, suivi d'ARAGO et de VILLANO)

AITA NAGUSIA: Kristo gure Jaunaren grazia eta amodioaren gatik bota harma horiek (coup de feu, Le Père se retourne vers VILLANO et ARAGO Salarat eremanen zaituztet. Zatozte.

VILLANO: Ez zaituzte gehiago segitzen...

AITA NAGUSIA: Ez naute aditu. Zatozte...

MIURA: Segi azue Aita Nagusia. Hari oldarzea ez dira menturatuko.

(Le Père sort, ainsi que VILLANO et ARAGO. Coups de feu. Puis le bruit cesse brusquement. Un long silence. Le Père revient. Il est blessé et fait un effort visible pour se tenir debout)

MIURA: (se précipite à sa rencontre): Kolpatua zira. Nor da menturatu???

(Le Père atteint son bureau et s'y cramponne)

MIURA: Zure gizonak???

AITA NAGUSIA *(Avec un geste vers la carte):* Hori da hobendun... Ene lana... Erresuma hau... Debrua...

(Il se jette sur la carte et l'arrache du mur. La carte à la main, il s'effondre et ne donnera plus aucun signe de vie jusqu'à la fin du tableau. Seul le coin supérieur droit de la carte est resté cloué au mur avec le portrait de St François Xavier. MIURA s'est précipité auprès du Père dont il dégrafe la robe)

VILLANO *(qui revient avec ARAGO):* Ene eginbidea bethe dut.

MIURA: Nahasmendua fini dea?...

VILLANO: Amor eman dute.

ARAGO: Bitxi da. Iduri du heien errabia bet-betan gelditu dela konprenitu dutelarik *(geste vers le Père toujours étendu à terre)*

VILLANO: Gure xedetarat heldu gira.

MIURA: Gure xedetarat heldu gira *(toujours auprès du Père)* Jainkoaren erresuma debruaren ganat joan da.

BORZGARREN ZATIA

(La nuit. Le Père étendu sur la grande table, immobile, les yeux ouverts est entouré des pères qui tiennent chacun un cierge allumé à la main. Au centre le Père OROS, enchaîné et agenouillé. Des soldats espagnols l'entourent. Deux flambeaux attachés au mur par des anneaux de fer éclairent insuffisamment le côté gauche de la scène. MIURA est installé dans le fauteuil du Père derrière le bureau, ARAGO debout, à côté de lui. Le groupe des Pères reste à l'arrière plan et dans la pénombre.)

ARAGO: Falta dira oraino sinadura zonbeit.

MIURA: Villano Jauna (*celui-ci avance*) Hartuko dituzu hamabi gizon eta kondenatuak garbituko.

VILLANO: ...

MIURA: Galeretarat kondentau Jesuistak barkoetan ezariko dituzue.

VILLANO: Zure manueri nago.

MIURA (à ARAGO): Erakuts gizon horien paperak (*il consulte les dossiers l'un après l'autre*)

(Chacun des Pères à l'appel de son nom, s'avance vers MIURA après avoir passé son cierge au voisin.)

MIURA: Aita Liebermann.

LIBERMANN: Hemen niz.

MIURA: Prestatuko zira sarri. Galeretarat kondenatua zira... Clarke.

CLARKE: Hemen niz.

MIURA: Lebermann Aita bezala. Reinegg.

REINEGG: Hemen niz.

MIURA: Galeretarat ere kondenatua. Escadon... Clausser, Ortega... Jacquier, Briguel.

(Les Pères s'avancent l'un après l'autre et murmurent "présent" Hemen niz)

MIURA: Galeretarat kondenatuak.

(Les Pères reprennent leurs places. Un temps pendant lequel MIURA est plongé dans les dossiers)

MIURA: Hainberze hiltzerat kondenatu?

ARAGO: Behar da.

MIURA: Nola hautatu ditutzu?

ARAGO: Gizon bat eskualde baktotxetik. Ikasi behar dute exenplu horien bidez.

MIURA: Exenplu baliosa...

ARAGO: Nahiko dituzu beraz sinatu?...

MIURA: Ahal othe dezaket berzela?...

ARAGO: Ez dugu egiten ahal berzela... Barkatu nahi baginu ere ez gindezake.

MIURA: Barkatu nahi izanikan ere... Gauzek berek ez daukute bethi obeditzen. (*il signe*) Hiltzerat... Hiltzerat. Hiltzerat... Hiltzerat... (*il signe de plus en plus rapidement*) Hiltzerat... Hiltzerat... Hiltzerat... (*épuisé, il rassemble les dossiers de la main gauche et les tends à ARAGO*) Horra. Bazter hemendik...

(ARAGO s'incline et sort avec les dossiers, dont l'un le dernier pas encore signé reste oublié devant don MIURA. MIURA épuisé, rejette la tête en arrière au fond du fauteuil et ferma les yeux. CORNELIS assis depuis le début au bord de la scène s'avance vers lui)

CORNELIS: Sinadura horiek, hiltzerat kondenatze horiek ez dauzute eskua sobera akitu?...

MIURA: Libro zira Corbelis. Ez zaitut gehiago atxikitzen. Ene lana bururatua dut...

CORNELIS: Biba zu (*regard vers la fenêtre*) Pedro de Miura Jauna nahi dituzia ikusi irabazleak?...

MIURA: Irabazleak?...

CORNELIS: Irabazleak ba... Kontent dira orai... Bustillos, Catalde, eta heien lagunak. Zure klika

hori besta da...

MIURA: Ez gira hortaz batere kexu. Irabazlea España da.

CORNELIS: Oh... Españolak dira bethi irabazleak. Zonbeit mende hotan. (*Il pousse le mappemonde, qui commence à tourner lentement*) Iguzkia ethortzen den aldetik itzaltzeradino, espatarekin nagusitu zirezte. (*MIURA s'approche*) Urrun, bethi urrunago. Mundu bazter batetarik berzerat kurri, beti ezpata eskuan.

MIURA (*pensif devant le mappemonde*): Beti ezpata eskuan.

CORNELIS: Odola nasai itxuri da zuek pasatu zirezten lekuetan. Hemen ere indarraren bidez finkatzen zirezte. Azken puttarak dituzue. Eskualde hau ere eskutik joaiten ari zauzue. (*Il prend le flambeau dans l'anneau et eclaire le mappemonde.*) Zuen Indietako lur guziak zertaratuak dira? Gu, gira gu, Hollandesak han zuen nagusi bilhakatuak. Milaka erre gituzue. Haizatu gituzue Satanek bere gidekoak bezala. Eta zuen nagusigoa gure eskuetarik da erori, Maganales, Filipinez, Calcutta, Goa... eta holako zonbat... Zer zauzue horietarik gelditzen?... Eta ez duzue sekulan deus ikasi, sekulan deus....

MIURA: (*arrache le flambeau à CORNELIS et l'écrase sous son pied*) Zure ganik ez du deus ikastea beharik. Etxe huntarik joaiten ahal zira. (*plus calme*) Jainkoak dautzula bidaia on bat.

CORNELIS: Zuri ere lo ezti batekin Jaun Anbaxadorea... (*il sort*)

ARAGO: Paper bat falta dut. Hemen gelditua izan behar da. Ah... Horra. Oros Aitaren kondenamendua...

MIURA: Hiltzerat kondenatua? Gutarteko bat?... (*il regarde le dossier*)

ARAGO: Ez berzerik egiteko. Hura da hobendun handiena.

MIURA: Bego

OROS (*au Père qui semble réagir dès les premières paroles*): Aita Nagusia... Absoluzioea. Tiroan garbituko nute. Ez nu heriotzeak izitzen bainan bethiereko gaztiguak. Desobeditu dut.

AITA NAGUSIA (*commence lentement à parler*): Oros Aita, obedientzia hitzeman ondoan hitza jan duzu. Ezpata ene nahiaren kontra altxatu duzu. Jesusisten Batasuna odolaren eta ahalgearen perat bota duzu.

OROS: Ene hutsak aihortzen ditut. Confiteor.

AITA NAGUSIA: Barkatzen dautzut, nik ere bekatu egin dut. Galdatu dautzuet obeditzea eta ene bihotzaren solan berzerik asmatzen nuen. Jainkoaren erresuma sakrifikatu dut, manua hala zelakotz. Bainan, dolurekin egin dut. Gu guzien lana ene eskuez suntsitu dut, bainan ene bihotzak ez zuen nahi. Ene bihotza partikatua zen eta uste nuen Jainkoaren erresuma xutik emaiten ahal zela mundu huntan berean.

OROS (*à MIURA*): Prest niz... (*ARAGO s'approche de lui*)

AITA NAGUSIA: Ez oraino... Ixtant bat utz gaitzatzu. (*Il s'est tourné vers la carte*) Banakien hori gurekin egonen zela. So egizue, so egizue... (*Toute le monde suit la direction de son bras*) Frantses Xabierekoa gurekin egon da. Bihotza sutan zaukan saindua. Ez daukute harta ahal izan. So egizue, behar zakozue. Ahul, bakarrik, Indiako lurak kurritzen ditu, paganoak giristinotzen, etxenplua emaiten du, bidea erakusten. Hoinberze mila bathaio, haren esku eskuinak ez dezake gehiago. Japonia bitzen du, ugarteak iragaiten ditu, eta ez zako aski, lur guzia behar du. Txinan sartu nahi du... Beha zakozue... So egizue Nabarrako gizona bere sotan piltzartuarekin. Predikari umil eta ezin akituzkoa... Gose de egarri, zer munta du. Lur guzia beretu behar du. Bizkitartean ez litake behar gerlarik ez esklaborik... Huna orai udazkenoko uholdeak. Ugarte batetik berzerat pasatzeko behar dago. Beha, sukharra badu eta othoizean ari da Ez da barkurik haren eramaiteko. Ez medikurik haren arthazeko. Lasto ustelduaren gainean etzanik dago eta ez da gizonik haren soleitzeko. Bainan uros da, badaki gizon guziak salbatu beharko direla... Badakit hainitz haren sailari lothuak direla, eta sua ez dela itzaliko. Berriz ethoriko, bere bihotz izarri gabekoarekin... Berriz ethoriko da (*Le Père retombe en arrière.*)

MIURA: Nere khara ere ez da ttipitua, Alfonso Fernandez, Españaren eta ene Erregearen alderako kharra.

(*Sur un signe de MIURA, ARAGO emmène OROS. LIBERMANN se penche sur le Père, éteint le cierge dans sa main et remonte la couverture sur le visage du mort. L'un après l'autre les Pères s'avancent vers la table sur laquelle ils posent les cierges après les avoir éteints. Tous s'agenouillent. MIURA également. L'obscurité est*

maintenant complète dans la partie droite de la scène.)

AITAK: Per Dominus nostrum, Jesum-Kristum, Filius tuum qui tecum vivit et regnat in unitate Spiritus Sancti deus, per omnia saecula saeculorum.

MIURA (*se relève doucement pendant la prière des Pères prend son chapeau, sa cape*): Zer irabazi duke gizonak mundu guziaz jabeturik ere, bera galtzen bada?

(Il s'apprête à sortir. D'en bas monte le bruit sourd des tambours du peloton d'exécution: Confiteor,... Confiteor...)

AKABO